

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA 2020-21

OINARRIAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Covid-19k sortu duen osasun egoera dela eta, Aisialdiko Begirale Ikastaroa egoera horretara egokitu egingo da.

1.-IKASTAROAREN HELBURUA, FORMATUA, DATAK, ORDUTEGIAK ETA GUNEAK

Helburuak: Mankomunitateko udalerrietan euskaraz antolatzen diren haur eta gazteei begirako aisialdiko ekintzetan aritzeko beharrezkoa den begirale formakuntza homologatua euskaraz eskaintzea eskualdeko gazte euskaldunei. Begirale eta ume eta gazteen artean euskara erabiltzeko ohitura sustatzea da gure helburu nagusia; eta uste dugu begiraleak herrikoak edo eskualdekoak izanda errazagoa izango dela ume eta begiraleen arteko harreman iraunkorrak sortzea eta eguneroko jardunean harreman horiei eustea.

Formatua: 2020-2021 ikasturteko AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA aurrez aurre egingo da. Beti ere, COVID19-a dela eta, segurtasun neurri guztiei jarraituta eta desinfekzio pausu guztiak betez.

- Atal Teorikoa: 150 ordu. 12 ikastaroetan (12 asteburutan) banatuta. Asistentzia %100ekoa izan beharko da

9 asteburu: ostiraletan 18:30-21:00 eta larunbatetan 10:00-18:30

3 asteburu: larunbateko 10:00etatik igandeko 13:30era aterpetxe batean.

- Atal Praktikoa 160 ordu. Atal teorikoa amaitutakoan gauzatuko da, Aisialdiko Talde, Elkartebaten ekintzetan edota udalekuetan parte hartuz.

Bestalde, Covid19-a dela eta, ikasturtean zehar berriro ere "alarma egoeran" sartuko bagina, ordu kopuruaren %30a ON-LINE gauzatuko litzateke. Beti ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren oniritzia izanda.

Ikastaroa amaitzean parte-hartzaileek Eusko Jaurlaritzak luzatutako Aisialdiko Begirale Titulua eskuratuko dute.

Gunea: 9 asteburutan Enkarterriko Mankomunitatea osatzen duten udalerririkorri bateko lokal batean egongo dira, oraindik zehaztu gabe dago. Izena ematen duten kopuruaren arabera hautatuko da leku egokia COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean ezarri diren segurtasun eta prebentzio neurriak bete ahal izateko.

Beste 3 asteburuetan La Arboledako aterpetxean emango da ikastaroa.

Datak: Ikastaroaren zati teorikoa urriaren 17an hasi eta apirilaren 18an bukatuko da. Azken ebaluazioa horren ostean egingo da eta data zehaztu gabe dago. Ondoren, zati praktikoa egin beharko da (160 ordu). Dena den, zein asteburutan egingo den ikusteko Aisialdiko Begirale ikastaroa

2020-21 atalean dagoen "EGUTEGIA" izeneko dokumentua ikusi. COVID-19a dela eta, edo beste arrazoi batzuegatik egutegian aldaketak izan daitezke.

2.-PARTE-HARTZAILEAK:

Parte hartzaileak onartuak izateko, baldintza batzuk bete beharko dituzte:

- 18 urte izatea edo 2021ean betetzea (praktika egiten hasi baino lehen)
- Enkarterriko Udal Mankomunitateko udalerrri batean (Artzentales, Balmaseda, Karrantza, Galdames, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla) erroldatuta egotea.
- . Euskara menperatzea (klaseak jarraitu eta memoria euskaraz entregatzeko gai izatea)
- .DBHko titulazioa izatea

Ikastaroetan alkohola eta drogak guztiz debekatuta daude. Ikasleren bat aipatutakoak kontsumitzen harrapatuz gero kanporatua izango da.

Aurreikusita dauden plaza baino gazte gehiago apuntatzen bada, jendaurreko zozketa egingo da irailaren 30ean goizeko 11:00etan.

3.-IZEN-EMATEA:

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROaren berri emateko esku-orriak banatuko dira etxez etxe eta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako liburutegi edota kultur etxeetan eta gazteguneean, bertan kartelak ere jarriko direlarik. Horrekin batera, baliabide digitalak erabiliko dira: Enkarterriko Mankomunitateko web orria (www.enakrterri.eus) eta facebooka eta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako web orriak eta gizarte-sareak.

Izen-emateko modu bakarra egongo da: on-line. Horretarako, Mankomunitatearen web orriko AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA 2020-21 atalean dagoen loturan sakatu behar da. Izen-emate orria bete, ordainketa egin eta horren ziurtagiria bidali behar da euskera@enakrterri.eus helbidera.

3.1.-Izena emateko epea:

Izena emateko epea irailaren 17tik 25era bitartean izango da (biak barne), izen-ematearekin batera ordainketa egin beharko da.

Matrikula orriak eta ordainagiriaren kopia epe barruan ez badaude Euskara Zerbitzuan ez dira onartuko.

Hala ere, irailaren 29an izena eman dutenen zerrenda argitaratuko da Mankomunitatearen web orrian: www.enakrterri.eus AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA 2020-21 atalean. Bertan parte-hartzaileen NAN zenbakia baino ez da agertuko.

4.-ZOKKETA/ADJUDIKAZIO FASEA:

Leku-kopurua mugatua izango da, 20 leku, hain zuzen. Izena emateko epea amaitzen denean, gehiegizko izen-ematea izan bada, lekuak zokketa bidez adjudikatuko dira, berdintasuna bermatzearen.

Leku librerik geratuz gero, ez erroldatuek parte hartu ahal izango dute eta inskripzio-hurrenkerari jarraituko zaio.

Zokketaren emaitzen arabera adjudikatuko dira plazak. Plazarik lortu ez dutenek erreserbarako zerrenda osatuko dute. Zerrenda horretako hurrenkerara ezartzeko, zokketan ateratako zenbakiari jarraituko zaio.

Zokketa –beharrezkoa bada- irailaren 30ean izango da eta jendaurrean egingo da goizeko 11:00etan Mankomunitateko egoitzan. Behin zokketa eginda, onartuen zerrenda jarriko da Mankomunitatearen web gunean (www.enkarterri.eus) AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA 2020-21 atalean irailaren 30ean eta Mankomunitateko iragarki-oholean.

5.-MATRIKULA ORDAINTZEA:

Aurten, irailaren 17tik 25era bitarteko epea dute 180 € ordaintzeko. Ez erroldatuek 240 € ordaindu beharko dituzte. Zokketaren ondorioz kanpoan geratu direnei dirua itzuliko zaie.

Ordainketa Mankomunitateko IBAN: ES 95 2095 0078 44 5060308036 kontu-zenbakian egin beharko da. Ordainagirian parte-hartzailearen izena eta bi abizen jarri beharko dira.

Kuota ordaindu eta onartua izan ondoren, ez da aipatutako zenbatekoa itzuliko.

7.-ANTOLAKETA/INFORMAZIOA/HARREMANA:

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuari eta zerbitzua adjudikatuko zaion enpresari dagokio AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA kudeatzea.

Programari buruzko edozein informazio webgunean: www.enkarterri.eus eta 94 667 18 51 (Enkarterriko Mankomunitatea -9:00etatik 14:00etara-) eskatu ahalko da. Eta behin ikastaroa hasita, ikastaroaren koordinatzailearen telefonoan 688664895.

Dena den, ikastaroa hasi baino lehen, ikastaroa emango duen aisialdi-eskolak onartutako parte-hartzaile bakoitzari jakinaraziko dio ikastaroari buruzko informazio guztia (edukia, funtzionamendu arauak, egin beharreko lanak, ordutegiak, baita uneko osasun egoera dela eta, bete beharreko segurtasun eta prebentzio neurriak ere). Horretarako, mezu bana bidaliko dizkie postaz.

Kontsultak Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren posta elektronikoan euskera@enkarterri.eus ere egin ahal izango dira.

Ikastaroaren lehenengo egunean komenigarria da hurrengo dokumentuak digitalizaturik izatea: NANaren aurreko eta atzeko aldeak, Karnet tamainako argazki bat eta DBHren ziurtagiria edo Eskola Graduatuaren ziurtagiria.

8.-COVID-19 BIRUSA DELA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

Unean-uneke egoeraren arabera eta osasun agintariak agindutakoaren arabera, neurriak zorrotz edo arindu ahal izango dira. Izan ere, beti jarraituko dira osasun agintariak ematen dituzten segurtasun eta prebentzio neurriak. Dena den, enpresa esleipendunak indarrean dauden arauetara egokitutako segurtasun prebentzio eta higiene neurrien protokoloa izango du. Gainera ikastaroan hasteko parte-hartzaileek "GAZTEEN HAZKUNTZA-AISIALDIKO JARDUERETAN PARTE-HARTZEARI, INFORMATZEKO BETEBEHARRARI ETA BAIMEN INFORMATUARI BURUZKO BALDINTZAK ONARTZEKO DOKUMENTUA" sinatu beharko dute.

- 1.-Temperatura hartuko da sarreran, eta sukarra izanez gero etxera joan beharko du.
- 3.- Ondoren, gel hidrol-alkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte eta gelan sartuko dira.
- 4.- Derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea ikastaroa dirauen bitartean. Beraz, parte-hartzaile guztiek etxetik ekarri beharko dute maskara jantzita.
- 5.- Ikasle bakoitzak leku finko bat izango du gelan eta ez da lekuz aldatuko. Ikasleen arteko distantzia gutxienez 1,5 metrotakoa izango da.
- 6.- Ikastaroaren gunetik irten eta sartzen garen bakoitzean eskuak gelarekin garbituko ditugu.
- 7.- Ikastaroaren gunetik irteten garen bakoitzean, bakoitzak bere aulkia eta mahaia, hau da, bere gunea desinfektatuko du.
- 8.- Dinamikaren bat gauzatzeko, beste gelaren bat edota kalera bagoaz, ikasgelara berriro sartzen garenean, banaka sartu eta eskuak desinfektatu egingo ditugu.
- 9.- Komunera, banaka joan beharko dira. Ikasgelan berriro sartzen direnean, eskuak gelarekin desinfektatu beharko dituzte.
- 10.-Ikasle guztiak kanpoan daudenean ikasgelako leiho guztiak eta ate guztiak zabalik gelditzen direla ziurtatuko dugu. Beti ere, ikasgela aireztatzeko.
- 11.- Guztiei eskatzen diegu zuhurtzia handiz jokatzea, eta etxeetan edo parte-hartzaile gaixotuz gero, ahalik eta lasterren horren berri ematea, ikastaroan horrelako kasuetarako ezarritako protokoloan zehaztutakoa lehenbailehen bete ahal izateko.

12.-Haurren bat edo hezitzailearen bat Covid-19 birusarekin gaixotzen bada edo susmoa badago, Osakidetza joko da eta euren protokoloak jarraituko dira.

13.-Mankomunitateak edo enpresa esleipendunak ezarritako protokoloak eta neurri guztiak ardura handiz jarraituta ere, Covid-19 kasuren bat agertuko balitz, familiek ezingo dute inolako kalte-ordainik eskatu ez Mankomunitateari, ez enpresa esleipendunari.